

HITZAURREA

POLIFONIA HETERODOXOAK ETA ISILTASUNAK

Larraitz ARIZNABARRETA GARABIETA
(Boise State University)

*The exile knows that in a secular and contingent world, homes are always provisional. Borders and barriers, which enclose us within the safety of familiar territory, can also become prisons, and are often defended beyond reason or necessity. Exiles cross borders, break barriers of thought and experience.*¹

Edward Said (2000, 185) *Reflections on Exile and Other Essays*

Nahiz eta frankismoaren aurkako erresistentziaren praktika eta espazio sozialek berezko egitura ideologikoak² eta, neurri batean,

¹ Erbestertuak badaki mundu sekular eta kontingente batean etxeak beti behin-behinekoak direla. Mugek eta hesiek familiaren lurraldeko segurtasun-eremuan gordetzen gaituzte, baina espetxe ere bihur daitezke, eta sarritan arrazoiaren edo beharraren gainetik defendatzen dira. Erbestertuek mugak zeharkatzen dituzte, eta pentsamendu- eta esperientzia-hesiak apurtzen dituzte.

² Ikuspegi unibertsal batetik, ideologiak “talde bateko kideek onartzen dituzten gizarte-sinesmen orokorrak eta abstraktuak dira, talde horretako ezagutza eta iritzi berariazkoenak (jarrerak) kontrolatzen edo antolatzen dituztenak” (Van Dijk 1999, 72); hau da, “gizarte-talde batek partekatzen dituen gizarte-sinesmenen oinarria” dira. Sinesmen ideologikoen taldeko kideek beren buruari buruz dituzten iritziak zedarritzen dituzte, —taldeko kideak batzen dituzten egia-irizpideak ezartzen dituzte; taldearen berariazko ezagutza kontrolatzen dute— eta, gainera, exotaldeari buruzko iritzien ardatzak osatzen laguntzen dute.

partekatuak³ behar izan zituzten, egia da, halaber, erregimenaren aurkako oposizioa zein 36ko gerrak eragindako erbestealdiak esperientzia askotarikoak eta anitzak direla, bai bizipenei, bai ideologiei dagokienez.⁴ Liburu honek frankismoak atzerriratutako zenbait gizon-emakumeren lanari buruzko ikerketa jasotzen du, eta egile horien guztien lanek zalantzan jartzen dute —batzuetan asaldura eragiteraino— gizartean onartuen dagoen edo kanonikoena den 36ko erbestealdiaren ikuspegia.

Testuinguru horretan, *Erbestealdiko heterodoxiaren espazioak* izenburua eman diogun liburu honen helburua da erresistentziaren praktika hobeto ulertzen laguntzea, bai eta, zenbait arrazoi direla medio, erbestealdiaren ikuspegi ofizialenetik kanpo geratu diren pertsonen eta mugimenduen lekukotza adierazgarriak jasotzea ere. Orain arte baztertu edo isildu diren gizarte-eragileen diskurtso-interakzioak ikertzeak eta haien lanetan aurki daitezkeen aztarnak —gaiak, erabilitako generoak eta haietatik eratorritako narrazio-egiturak: ikuspegia, arreta-gunea, elipsiak, edo testu-ebidentzietatik ondorioztatutakoa— modu kritikoan aztertzeak funtsezko informazio interpretatiboa ematen diote 36ko erbestealdia sakon eta neurritz ulertu nahi duen edozein hausnarketari, errealitate poliedriko eta konplexu baten ikuspegi homogeneoen faltutasuna agerian jartzen laguntzen baitute.

Beraz, askotariko ideologiak dituzten intelektualak ikertuko ditugu, eta haiek botere hegemonikoarekin⁵ dituzten harremanak —eta

³ Van Dijkek gogorarazten duen bezala (1999, 230), “elite ez direnek (talde menderatuak) ideologia-zatiak partekatu behar izaten dituzte, menderatzaile ez izate horretan bat datozelako besterik ez bada ere, eta, horren ondorioz, interes bat gutxienez partekatzen dutelako; hau da, botererik eza. Menderatutako talde bakoitzak bere talde-ideologia du, eta ideologia horrek ematen dio eguneroko bizitzako esperientzia zehatzak, gizartean duen egoera (menderakoa) eta gerta daitezkeen oposizio-, desadostasun- edo erresistentzia-moduak azaltzeko oinarritzko markoa; hau da, Manheimek ‘utopiak’ esan zien sinemen-sistema horiei, ohiko ideologia menderatzaileen alternatibak adierazten zituztelako.”

⁴ Espainiako erbestealdiari buruz, ikus, esaterako: González-Allende (2016). 36ko Gerrak eragindako erbestealdiaren aniztasunari buruzko erreferentziak Hamaika Bide elkartearen lan guztietan ematen dira.

⁵ Boterea —eta taldeen eta erakundeen gizarte-boterea zehazki— ezinbestez da funtsezko argudioa erbestealdiari buruzko lan kritiko gehienetan. Gizarte-boterea definitzeko “kontrol” hitza erabiltzen da (Said 2000; Van Dijk 2001;

botere horrekin gehiegikeria-, menderatze-, desberdintasun- eta erresistentzia-gaietan duten elkarrizketa— funtsezkoak bezain polisemiakoak dira. “Memoria historikoaren beste alde” deritzon hori ikertzea da kontua, frankismoak eragindako erbestealdiko bizi-esperientzien eta jarrera ideologikoen aniztasuna —ez beti harmonikoa— berreskuratzen eta aztertzen laguntzeko.

Lan honetan aztertzen diren disidente guztien biografietan eta lanetan, ezinbesteko eragina dute koordinatu sozio-politikoek. Adierazpen hori tautologiatzat har liteke, koordinatu horien ezohiko izaeraren garrantziagatik ez balitz. Erbesteratu heterodoxo —horrela izendatzea adostu dugu— horien lana espazio-gatazka jakin baten sinekdoke da gehienbat, lan horien balio artistikoari ezer ukatzeko asmorik gabe, gure aldetik. Gainera, egile horien harremanen metafora bizia ere bada lan hori. Harreman horiek, esan beharrik ez dago, botere frankistaren⁶ aurkakoak izan ziren, baina —eta gai hau gutxiago aztertu da— deserosoak ere bai erbesteratuen taldearentzat berarentzat.

Ez da harritzekoa liburu honen funtsezko ardatzetako bat zenbait emakumeren lanaren azterketa izatea. Izan ere, Carolina Erdociak Maruja Mallo artistari buruz egindako artikuluan gogorarazten duen bezala, “intelektual eta artista errepublikanoentzat erbestealdia bazterketa, isiltasuna eta gutxiespena izan bazen, emakumeentzat erabateko ez-izatea izan zen”. Inposatutako gizarte-arauek, bai eta faltsukeriaz

Castells 2009). Izan ere, gizarte-talde jakin bateko kideek beste talde batzuen pentsamenduak eta ekintzak kontrolatzeko gai diren neurrian bereganatuko dute boterea. Boterea ezartzeko aukera izateko, beraz, aurretik zenbait gizarte-baliabideren erabilera pribilegiatua izan behar da eskura, hala nola indarra, diruarena, estatusarena, ospearena, ezagutzarena, informazioarena edo hura zabaltzeko aukerarena. Gizarte-talde menderatzaileek ezarritako boterea (botere hegemonikoa esaten zaio) eraginkorragoa da beste gizarte-talde batzuek zilegitzat eta naturalizat hartzen badute. Hain zuzen ere, menderatutako talde batek beste gizarte-talde baten botere-gehegikeriak eta ortodoxia era naturalean —arautuan— onartzeak ekartzen du ikerketa kulturelek eta mendekoek “botere hegemoniko” deritzena.

⁶ Liburu honetan sartu dira Iker González-Allendek (2016, 19) “irabazle desengainatuaren erbestealdia” deritzon multzokoak diren biografien eta lanen azterketak. Horrela izendatzen ditu “erregimen frankistaren aldekoak zirenak, eta, ondoren, haren aurkako jarrera hartu zutenak, hala nola Mateo Múgica, Gasteizko apezpikua.”

sinbolo bihurtutako genero-identitateek ere —beren buruari uko egiten zioten emazte edo ama sakrifikatuak bihurtzen zituzten emakumeak— ia ez zieten utzi garai hartako emakumeei beren bokazio artistikoak, intelektualak, sozialak eta politikoak garatzeko espaziorik. Iker González Allendek (2016, 59), José Ángel Ascunce Arrietaren karrera omentzeko liburuan, Ascunceri egindako elkarrizketan, hau azpimarratzen du:

Gerrareko garaian, generoak pertsonen egoera soziala eta pertsonala baldintzatu zuen, eta muga eta baldintzapen horiek berdin-berdin jarraitu zuten erbestealdian ere. Goi-mailako klasekoak baziren, gizonak ziurtatuta zuten ikasketak egitea, eta horrek nabarmen erraztu zien herrialde hartzaileetan integratzea. Emakumeen zoria oso bestelakoa izan zen. Haien heziketa ama eta emazte gisa zuten eginkizuna betetzera bideratzen zen. Heziketan eta kulturean zeuden alde horiek emakumeen nahiz gizonen etorkizunean eragin erabakigarria izan zuten, bai jatorrizko lekuetan, bai erbestean.

Artearen munduan ere ez zen aurrera egin inposatutako eginkizunez edo zereginez harago joateko. Jenio artistikoa ezaugarri maskulinoztat hartzen zen, eta emakumeak artearen objektu-modelo edo subjektibitate maskulinoaren proiektzioa besterik ez izatera mugatzen zituzten. Kritikak ez ditu behar bezala kontuan hartu erregimen frankistak eragindako erbestealdiko genero-hesiak gainditzeko gai izan ziren emakume haien konpromiso politikoaren, ahaleginaren eta lanaren emaitza intelektualak eta artistikoak, eta, zenbaitetan, alde batera utzi ere bai. Liburu honen beste helburuetako bat da, halaber, ahanztura horien bidegabekeria leuntzea, neurri batean bada ere.

Aipatu dugun *isildutako presentzia* horren testuinguruan, interes nabarmena du Tolosan jaiotako eta Mexikora erbesteratutako Cecilia García de Guilarte nobelagile, antzerkigile, saiakera-idazle, kazetari eta literatur-kritikaria aztertzeak. Hari buruzkoa da liburuaren lehen zatia —“Cecilia G. de Guilarteri omenaldia”—, egilearen jaiotzaren lehen mendeurrenean egiten zaion aitorten berantiarra. Lehen atal horren hasierako artikuluan, Blanca Gimeno, Macalester College-eko (AEB) irakasleak, García de Guilarterentzat idaztea zer zen azpimarratzen du: hain zuzen, emakume izateagatik eta zuen atxikipen politikoagatik inposatu zitzaion isiltasunaren aurka arduraz eta ausardiaz jarduteko modu bat. García de Guilartek paralelismoa ezartzen du genero-zapalkuntzaren eta klase-zapalkuntzaren diskurtsoen artean,

dekonstruitu egiten du errealtate bidegabe bat bere pertsonaien mundu narratiboaren bitartez, uko egiten baitio “botere-gehiegikerietan eta behartsuenen identitatea deuseztatzen duen egitura patriarkal batean oinarritutako gizarte-eredu bat” onartzeari.

Xehetasunez beteriko azterketa narratologiko batean, José Ángel Ascunce irakasleak Tolosako autorearen trilogia narratiboko pertsonaia femeninoen erbesterratu-identitatea aztertzen du, protagonisten arteko antzekotasunak eta aldeak adieraziz. Tolosako idazlearen lana berreskuratzeke antzeko ahalegin batean, Mari Karmen Gil Fombellida ikertzaile eta irakasleak Cecilia G. de Guilarteren eta Antonio Buero Vallejoren arteko antzekotasun eta bat-etortze dramaturgikoak deskribatzen eta aztertzen ditu, bai eta haien bizitzari dagozkionak ere. Gil Fombellidak, aldi berean, bi egileek beste batzuekin dituzten bat-etortzeak ere aipatzen ditu, hala nola Elmer Ricerekin edo Arthur Millerrekin zituztenak —guztiak ere belaunaldi batekoak—, eta Cecilia G. de Guilarteren *Contra el Dragón* eta Buero Vallejoren *Historia de una escalera* lanak alderatzen ditu. Ascunceren eta Gil Fombellidaren ekarpenek euskal erbestealdi errepublikanoko idazle garrantzitsuenetako baten lana berreskuratzen laguntzen dute, haren lanaren azterketa immanentearen eta xehetasunez betearen bitartez. Horrela, aipamen onomastiko hutsaz harago joaten dira ikertzaileak, eta idazle baten ekarpen literarioak azpimarratzen dituzte, kritikak bidegabe ezkutatu baititu haren merituak.

Pilar Domínguez Prats-en artikuluak G. de Guilarteren testuinguruari erreparatzen dio. Tolosako idazlea erbestetik itzuli eta ikertzailearekin lehen aldiz elkartu zenekoa gogoratzen du Pratsek, eta anekdota horrek ikertzen hasi zeneko garaiak gogoratzeko balio dio irakasleari, bai eta hasierako garai hartan sentitu zuen erbestealdi errepublikanoari buruzko ikuspegi ez-osoaz ikertzeko beharraz hausnartzeko ere. Erbestealdia gehienbat maskulinoa eta intelektuala izan zelako mitoa desegiteko, zenbait ikertzailek egindako ahalegin goiztiarra ere jasotzen da, Domínguez Prats berak egindakoa, besteak beste.

Liburuaren bigarren zatiaren izenburua “Euskal erbestealdiaren heterodoxiak eta isiltasunak” da, eta, zenbait azterketaren bitartez, Euskal Herrian erbesterratzea erabaki zutenen aniztasun ideologikoa erakusten du. Horien artean bereizten dira, alde batetik, erbesteko

euskal nazionalisten taldekoak direla esan dezakegunak, eta, bestetik, errepublikanismoaren inguruan biltzen zirenak.

Euskal nazionalismoa historian zehar askotariko talde kultural eta politikoez osatu izan dute, eta oinarrian —desadostasunak desadostasun— bat etorri dira Euskal Herria subjektu politiko independente bihurtzeko nahian. Ideologia nazionalista euskal herritarren identitate berezi eta idiosinkrasikoa adieraztean oinarritzen da, eta tradizioz ideologia horrek euskal identitate kolektiboarentzat funtsezkoak diren elementuak definitu ditu, horien artean lurraldetasuna, hizkuntza, kultura-berezitasuna eta, neurri txikiagoan, ezaugarri etnikoak azpimarratuz. Euskal nazionalismoak, beste batzuek bezala, berezko elementu sinbolikoetan objektibatzen joera du —hizkuntza, folklorea, kirolak, bandera, ereserkia, etab.—, eta elementu horiek praxi politiko jakin bat elikatu dute, gaur egungo estatuetatik autonomoak diren egitura administratiboak, politikoak, ekonomikoak eta sozialak bereganatzeko helburua duena. 1939ko gerraren ondoren eta frankismoaren urte ilunetan zehar, euskal nazionalisten ahaleginen oinarria kohesio kolektiboa adoretuko zuen erresistentzia bat egituratzea izan zen, eta, horretarako, gerran pairatutako porrotaren ondoren, haien herriaren kode sinbolikoa —gizarte-irudikapena— bizirik mantentzeko helburua jarri zioten beren buruari.

Espainiako errepublika aldarrikatzea, laizismoaren kulturaren alde egitea eta liberalismo demokratikoa dira Espainiako gainerako errepublikanoekin batera erbesteratu ziren euskal erbesteratu errepublikanoen ezaugarri ideologikoak, batez ere Mexikora eta Kubara joandakoenak. Unibertsitateko irakasleen, idazleen, kazetarien eta itzultzaileen taldeak “kultura hispanikoaren garapenean eta jakinduria unibertsalaren garapenean” lagundu zuen —González Allende (2016, 18)—, eta, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, esan daiteke haien kezka politikoak Espainiak nazio gisa zuen egoerari buruzkoak izan zirela, espainieraz idatzi zutela, eta ez zutela parte hartu euskal iruditeria kultural idiosinkratikoari eta bereziari eustea bultzatzen zuten ekimenetan. Altxamendu frankistaren aurreko zilegitasun errepublikanoak jarraitu zuen izaten haien asmo politikoen ardatz nagusia, eta gerrak kaltetutako bizitzen oroimenaren gaia izan zen nagusi haien saiakera- eta literatura-lan gehienetan.

Horrela, bada, euskal nazioaren gaiarekiko atxikimendua eta hari lotutako idiosinkrasia kulturala eta identitarioa aztertzeak lagundu egiten dute desegiten frankismoaren gerrak eragindako euskal erbestealdia errealitate monolitikoa izan zela dioen mitoa. Oro har, artikuluek erakusten dute, Saidek aldezten duen moduan (2000), erbestealdia eta nazionalismoa ezin direla neutraltasunez aztertu, elkarrekin harremanetan jarri gabe. Ildo beretik, Mari Jose Olaziregi (2011, 113) ikertzaileak, erbestealdia ulertzeko beste funtsezko liburu batean, zenbait gertaera historiko eta politiko dekonstruitzeko euskal errelatoak egingdako ekarpena nabarmentzen du. Diskurtso heterodoxoek, horrenbestez, gertaeren oroimena argudio manikeo eta mitologizatzaileetatik garbitzen laguntzen dute.

Bigarren zatiaren hasierako artikuluan, José Ángel Ascunce irakasleak Mateo Múgica apezpiku gipuzkoarraren bizitzaren deskribapena egiten du. Hasiera batean, altxamendu frankistaren alde agertu zen apezpikua, baina hark aurreikusitakoa betetzen ez zela ikusita, berehala egin zen Francoren erregimenaren aurkakoa. Ekarpenean, apezpikuaren entregatzeak, kontraesanak eta isiltasunak justifikatzen dituzten nortasun- eta pentsamolde-ezaugarri erabakigarrien azterketa nabarmentzen da. Ikerketa horrek, apezpikuaren berezitasunagatik eta haren bilakaera ideologikoagatik, auzitegi frankistek exekutaturako euskal apaiz nazionalista batzuei buruz egingdako beste azterketa batzuk osatzen ditu.⁷

José Luis Orella historialariak Jose Martin de Aguirre-Ceciaga y Eguren Durangoko apaiz jesuitaren kasua azaltzen du. Jesuita hori, 1931n Espainiako estatuan Jesusen Lagundia desegin eta gero, Belgikara erbesteratu zuten 1932an. 1937ko martxoan, Jesusen Lagundiak Venezuelara bidali edo desterratu zuen, 1939ko maiatzean behin betiko kanporatu zuten arte (urte horretan Kubara joan zen, Errumaniara bidali nahi zuten arren). Orellak jesuitaren gutunak aztertzen ditu eta Aguirre-Ceciagaren ibilbidea azaltzen du, gertaera historikoek ez ezik, apaiza eta euskalduna izateak erabat baldintzatua. Nazionalkatolizismoak, ikertzaileak esaten digunez, etengabe espiatu eta jazarri zuen, batez ere haren nagusiek eskatzen zioten Francorenganako atxikipena ez erakusteagatik. Zuhurtasunaren eta obedientziaren artean, ez zitzaion egoki iruditu —eta gutxiago apaiza izanik— frankistek

⁷ Ikus, besteak beste, Anderson (2011).

egindako bonbardaketak eta fusilamenduak goraiatzea, eta ez zituen inola ere goraiatu.

María Buenok Antonio de Lezama arabarra eta haren bizitza intelektual gorabeheratsua aztertzen ditu: politika, kazetaritza eta masoneria. Lezamaren biografia desberdin eta konprometituan zehar egindako ibilbidean, erregimenak faltsukerian oinarrituta eraikitako errealitatearen benetako izaera ezagutarazten ahalegintzen den intelektual bat ikus daiteke. Horrela, intelektualaren lanean, alderdi informatiboaz gain, alderdi formatiboa eta balio zehatzak komunikatzen dituen ere agertzen dira. Bestalde, Verónica Azcuek Aurora Arnaiz idazlearen —Mexikon bizi izan zen 1940tik aurrera— hobekuntzaren eta egokitzapenaren historia kontatzen du, haren memorien azterketaren bidez. Azcueren iritziak, Aurora Arnaizen egunkarietan zatiketarako joera nabaritzen da, eta, ezaugarri horretan, Azcueren ustez, bat egiten du garai hartan oroimen-generoa landu zuten beste emakume idazle batzuekin.

Iñaki Aduriz irakasleak, bere aldetik, “delirio” eta “heterodoxia” kontzeptuei buruzko hausnarketa egiten du, bai eta haien artean ezartzen den loturari buruzkoa ere; eta, azterketa hori egiteko, Eugenio Imaz intelektualari buruzko azterketa eta haren lana erabiltzen ditu. Adurizek filosofoaren nortasun asaldatua eta ameslaria nabarmentzen du, eta hura heterodoxotzat hartzera eramanez duten ezaugarri nagusiak aipatzen ditu. Mariana Imaz ikertzailearen arabera, Eugenio Imazen ibilbide politikoak eta egia historikoa *eraikuntza politikoa* delako uste osoak autore horren lan filosofikoa etengabeko errebeldia- eta heterodoxia-ekintza bihurtu zuten. Bestalde, Maria Dolores Arana literatura-kritikaria eta poeta da Mar Trallero doktorearen aztergaia. Ikertzaile hori erbesteratu donostiarraren bizitzan eta lanean murgiltzen da, eta biografia konplexu bat zirriborratzen du, konpromiso politiko ukaezinen eta emaztearen zein amaren eginkizunetik jarrera otzanaren artean bizi izan baitzen emakume donostiarra. Bestalde, Juan Manuel Díaz de Guereñuk Juan Larrea “heterodoxo tematia” zela aldarrikatzen du, eta poetaren idatzi pertsonalak aztertzen ditu, Mexikoko erbestealdian egon zen garaikoak. Díaz de Guereñuk ondorioztatzen du Larrearen testuetan ikusten den “grina profetikoa” “barneraino atsekabetuta” dagoen gizaki batengandik sortutakoa dela.

Euskal erbestealdiko argitalpenen artean, jarrera heterodoxoena, zalantzarik gabe, komunikatzeko tresna bizi gisa euskara garatzen

ahalegindu ziren aldizkari haiena da, nahiz eta Euskal Herritik milaka kilometrora egon. Argitalpen horiek ez ziren oso ugariak izan, baina berebiziko garrantzia izan zuten, garai hartan euskara debekatuta baitzegoen euskal lurraldeetako zati handiengan; diktaduraren mende zegoen hartan, alegia. José Ramón Zabala irakasleak kasu horietako bat aztertzen du, *Euskaltzaleak* (1954-1960) aldizkaria; izan ere, Buenos Airestik diasporako euskaldunak eta erbesteratuak proiektu komun batean elkartu zituen: hizkuntzaren erabilera normalizatzea egoera zail hartan. Hego Ameriketako lurretan, euskal hiztun talde txiki batek borroka egin zuen, etsipena emanda zegoen haien hizkuntzaren estandarteari eusteko. Irudika al liteke ezer hori baino heterodoxoago eta utopikoago?

Ana Gonzálezek ikerketa-gaien artean, erbestealdiko euskal argitalpenak ere agertzen dira. Esaterako, “Euskal erbestealdiko Mexikoko prentsa: ahots heterodoxo bat diasporan” artikuluan, Mexikoko euskal nazionalismoaren erbestealdiko prentsaren izenburuak aztertzen ditu, herrialde hartako argitalpen errepublikano espainiarren izenburuekin batera, eta, ikerketa horren bidez, 36ko erbestealdiko kosmogonia ez dela sistema itxi ideologikoki uniforme erakusteko ekarpena egiten du. Gonzálezek Mexikoko erbestealdiko zenbait argitalpenen diskurtsoaren arreta-gunea, gaiak eta ideologia aztertzen ditu, eta horrek Espainiako argitalpen komunisten ideien eta euskal nazionalismoari⁸ atxikitakoen artean ikusmolde ideologikoan dauden aldeak —politikoak eta erlijiozkoak, batez ere— azpimarratzera eramaten du.

Bigarren zatia Arantzazu Amezaga idazle eta liburuzainaren lanarekin eta Xabier Irujo Reno-Nevadako (AEB) unibertsitateko irakaslearen lanarekin amaitzen da. Haien ikerketa —edo “elkarrizketa”,

⁸ Ildo horretatik, komeni da azpimarratzea identitate kolektiboa osatzen duten elementuen zedarritze tematia —eta taldearen berezitasuna, ezberdintasuna edo bestelakotasuna aldarrikatzeko erreferentziak— izaera erresistentea duten ideologia nazionalistei egotzen zaiela; euskal nazionalismoari, esaterako. Hala ere, Sánchez Carrión (1999, 14) soziolinguista ospetsuak dioen bezala, gogoratu behar da esperientzia antropologikoak eta etnologikoak herri guztien eta talde kultural guztien etnozentrismo orokorra egiaztatu duela, salbuespenik gabe. *Lengua y Pueblo* lanaren hitzaurrean, egile horrek dio “oro har, etnia, talde edo nazio guztietan, oposizio oso ezaguna dela taldekideen eta arrotzen arteko bereizketa, eta lehen elementua berresten den neurrian, agerian jartzen dela, kontzienteki edo inkontzienteki, bigarren elementuarekiko mespretxuzko ñabardura”.

euren hitzetan— erbestealdiari eta heterodoxiari buruzkoa da, eta Euskal Herria aztertzen du bereziki. Euskal heterodoxiaren historiaren ibilbidea ikertzen dute, eta, horretarako, “genozidio kulturalaren” ortodoxia frankistaren aurkako erresistentzia dela diote heterodoxia hori. Ikerketaren oinarrian, Raphael Lemkin-ek, *genozidioaren ikerketak* sortu zituenak, egiten duen terminoaren deskribapena dago.

Liburuaren hirugarren zatian, “Iberiar penintsulako erbestealdien heterodoxiak eta isiltasuna” izenekoan, ikerketa-mota bat baino gehiago dago, horien artean emakume erbesteratuen lanen azterketak, erbestealdiari buruzko ikerketa gehienek baztertuak. Hirugarren zati honetako beste artikulua batzuetan, 1939ko erbestealdiarekin lotutako heterodoxia kontzeptua bera aztertzen da, eta adiera bakarreko ikuspegi zalantzan jartzen da, aztergaiak alderdi bat baino gehiago dituela kontuan izanda.

Hirugarren zatiaren hasierako artikuluan, Ricardo Tejadak, Université du Maine-ko ikertzaileak, heterodoxia terminoari eta hark kanon alternatibo baten eraikuntzarekin duen loturari buruzko hausnarketa egiten du. Azken batean, bere buruari galdetzen dio ea erbestealdiarekiko heterodoxo izan daitekeen, erbestealdia bera heterodoxia izanik. Bestalde, Mercedes Acillonak, Deustuko Unibertsitateko irakasleak, Zenobia Camprubí ikertzen du, azken horren egunkarien azterketaren bidez, eta birpentsatu egiten ditu aztertutako emakumearen erbesteratu-izaerari eragiten dioten baldintzak, bai eta Juan Ramón Jimenezekin izandako harremanetik eratorritako identitate-alienazioa ere. María Lejárraga sozialista ere bere senarraren itzalpean bizi izan zen, eta ez zen bere erbestealdiaren berezitasunaz benetan jabetu senarra hil zitzaion arte. Juan Aguilera irakasleak feminista espainiar horren bizitza aztertzen du, bai eta hark pedagogiari, literaturari eta politikari egindako ekarpenak ere. Jarduera politikoari dagokionez, Lejárragak publikoki egin zion hari uko “María Lejárragaren Frantziako erbestealdia: literatura, politika, pedagogia” artikuluan. Antzeko ikuspegi batetik, Alba Martínez Granadako unibertsitateko irakasleak Mexikon eta Frantzian erbesteratutako emakume andaluziarrek bizirauteko erabili zituzten estrategiak eta praktikak aztertzen ditu. Alba Martínezek bere buruari galdetzen dio ea zenbateraino bihurtu zen erbestealdia kontzientzia politiko eskuratzeko ingurune onuragarria, atzerrira familiarekin zerikusia zuten gaiengatik joandako emakumeentzat. Beste alde batetik, Laura Durante irakasleak Mercedes

Pinto eta haren lana aztertzen ditu. Garai hartako emakumeei inposatutako mugak apurtzeko ahaleginaren eredu dira Tenerifeko egileak politikaren eta hezkuntzaren arloan egindako ekarpen bikainak.

Beste intelektual baten bilakaera ideologikoa aukeratu du aztergaitzat Manuel Aznar irakasleak, José Manuel Castañón militar eta idazlearen bizitza gorabeheratsua azaltzen baitu haren gutunen eta lanen bitartez. Horrez gain, bere buruari erbestealdia inposatu zion heterodoxo bat ezagutarazten digu; izan ere, Castañóni erbesteratzea iruditu zitzaion Espainia frankistak eragiten zion izutik irteteko modu bakarra; militar eta idazleak bere garaian sortzen lagundu zuen Espainia hark eragindakotik, alegia. Antonio Plazaren azterketak, bere aldetik, erbestealdiko literaturako narrazioetako frankismoaren aurkako gerrillen gaiaren azterketa jasotzen du (gai hori ia ez dute ikertu garaiko ikertzaileek), zenbait egileren lanari erreferentzia eginez; besteak beste, José Herrera Petere, Francisco Martínez Allende eta Cesar Muñoz Arconadaren lanari. Lidia Bocanegrak, bestalde, Luis Álvarez idazle eta patriota espainiar polifazetiko bezain borrokalariaren azterketari heltzen dio. Idazle horren azterketa baliatzen du ikertzaileak heterodoxia borrokalariaren irmotasunari eta garatzeko ahalmenari buruzko hausnarketa egiteko. Hain zuzen, Pedro F. Mireten heterodoxia borrokalaria da Eduardo Mateo ikertzailearen ikerketagaia. Mateo “sailkaezina” iruditzen zaion pertsona bat ulergarriago egiten saiatzen da; izan ere, Mireten lana askotarikoa da, eta ez du inolako errespeturik agertzen jarreretan literatura-kanonarekiko eta haren arauetik, idazlearen jarrera “arrotza” eta “moldagaitza” izan baitzen kanonak ezarritakoaren aurrean.

Hirugarren zatia Iberiar penintsulako zenbait emakume “heterodoxori” buruzko hiru ekarpenekin amaitzen da. Emakume horien lana Espainiako Gerra Zibilak eragindako erbestealdiko kanonean baztertua dago, eta Inmaculada Real Lópezek bere lanean ibilbide “zaticatuak” izan dituzten zenbait emakumeren lana berreskuratzeko ahalegina egiten du. Ikertzaileak politikoki konprometitutako emakume idazle eta intelektualen biografia aztertzen du. Emakume horien ibilbidea lausotuta geratu zen haien bidelagun izan ziren gizonen ibilbidearen itzalean, eta, horren ondorioz, atzeratu egin zen, guztiz eragotzi ez bazen, emakumeon irudikapena edo haien lorpen partikularren aitortzea. María Teresa de León, Rafael Alberti poetaren neska-laguna, María Goyri, Menéndez Pidalen emaztea, eta Mercedes Comaposada,

Baltasar Lobo eskultorearen emaztea, dira emakume horietako batzuk. Eta horrek erakusten digun errealitatean, elkartu egiten dira gizarte oso patriarkal bateko arauak eta genero-arrazoiengatik mugak —sarritan nork bere buruari inposatuak—, erbestealdiko “emakume aske” horien ezagutzarik eza babestu duen ahanzturaren bidegabekeria eragiteko. Hain zuzen, Maruja Mallo da (hots, bere artearen eta biografiaren bidez inposatutako gizarte-arauak hausten gehien lagundu zuen emakumeetako bat) bi ikertzailearen aztergaia. Alde batetik, Carolina Erdocia doktoreak aztertzen du zertan oinarritu zen abangoardiako artearen erreferente den artista hori, subjektibitate artistiko berezia eta patriarkatuarekiko erresistentea osatzeko. Beste alde batetik, Amelia Meléndez irakasleak azpimarratzen du Mallok erbesteratutako errepublikanoaren konpromisoaren (ez zion sekula uko egin ideologia horri) eta artistak ekonomikoki bizirauteko eta artistikoki garatzeko erabilitako estrategien artean ezartzen duen dialektika.

Laburbilduz: liburu honetako saiakeren objektuaren nahiz trataeraren aniztasunean islatzen da Espainiako Gerra Zibilak eragindako erbestealdiaren errealitate askotarikoa eta poliedrikoa. Adieraz daiteke errealitate poliedriko baten azterketa sinplifikatzeko tentazioak eragotzi egin duela gaur arte, salbuespen aipagarri batzuk gorabehera, zenbait gai konplexu eta askotariko aztertzea, hala nola erlijio-erbestealdia, erbestealdi marjinalak eta desengainuak bultzatutako erbestealdiak. Horrela, nahiz eta *Erbestealdiko heterodoxiaren espazioak* lanak aztertzen dituen autoreak bat datozen beste erbesteratu batzuekin egoera politikoan eta izaera dialektikoki borrokalaria, liburu honek funtsezko ekarpena egiten dio oroimen historikoaren beste aldeari; izan ere, 1936ko erbestealdiaren kanon ofizialetik urruntzen diren erbestealdi kulturalak jasotzen ditu, bai arauaren aurkakoa irudikatzen dutelako, bai salbuespena edo gutxiengoa irudikatzen duten gertakariak, biografiak eta lanak direlako. Hamaika Bidek orain aurkezten duen liburu honek ezohikoaren azterketa hasteko asmoa du, eta, azterketa horiekin, ziur gaude, ikertzeko arlo berriak irekitzen dira, erbestealdiko alderdi ahaztuak edo baztertuak jasotzen dira, pertsona ahaztuak edo gaizki aztertuak berreskuratzen dira eta erbestealdiko kulturaren alderdi guztiak sendotzen dira.

Bibliografia

- ANDERSON, Peter: "From the Pulpit to the Dock: Basque Priests in Franco's Military Courts in 1937". *War, Exile, Justice and Everyday Life, 1936-1946*. Ed. Sandra Ott. Center of Basque studies-University of Nevada, Reno. 2011, 59-83.
- CASTELLS, Manuel: *Comunicación y poder*. Madril: Alianza editorial, 2009.
- GONZÁLEZ-ALLENDE, Iker: *El exilio Vasco. Estudios en homenaje al profesor José Ángel Ascunce Arrieta*. Bilbo: Deustu, 2016.
- OLAZIREGI, Mari Jose: "Basque Narrative about the Spanish Civil War and Its Contribution to the Deconstruction of Collective Political Memory". *War, Exile, Justice and Everyday Life, 1936-1946*. Ed. Sandra Ott. Center of Basque studies-University of Nevada, Reno. 2011, 107-132.
- SAID, Edward: *Reflections on Exile and Other Essays*. Massachusetts: Harvard University Press, 2000.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María: *Lengua y Pueblo*. (1980). *Lengua y pueblo*. Donostia-San Sebastián: Elkar, 1999.
- VAN DIJK, Teun: *Ideología. Una aproximación multidisciplinaria*. Barcelona: Gedisa, 1999.
- : "Critical Discourse Analysis". Deborah Schiffrin, Deborah Tannen, & Heidi E. Hamilton (ed.). *The Handbook of Discourse Analysis*. Oxford: Blackwell, 2001, 352-371.
-